



Enrikko Rubiños

“DENA OSO INDIBIDUALISTA BIHURTZEN ARI DA”

Vendetta talde nafar ekimentsuak bosgarren diskoa kaleratu du. Trilogia baten hasiera da. Lan berriak *Bother* izena du, ska estilora itzulera irudikatzen du are eta indar handiagoarekin, baina elektronika ere nabarmen erabiliz. Musika itsaskorra, erritmikoa eta egiazkoa transmititzen dute. Enrikko Rubiños bateria jotzailearekin hizketaldia izan dugu.



Iker Barandiaran
ARGAZKIAK: VENDETTA

Jendaurrean plazaratu zenetik, 2009an, kilometro ugari egin ditu Vendetta talde nekaezinak. Kilometro horiek bizi-penak ere badira.

Motxilan daramatena han-hemenka plazaratzen ari dira. Hala, ska errotik sortu arren, boskotea beti ahalegindu da berrasmatzen eta sonoritate desberdinak lantzen: ska, rocka, latinoa, tempo erdiak, hit!-ak bihurtutako piezak...

Zergatik erabaki duzue trilogia bat egitea? Zer historia dago atzean? Zer helburu dauka?

Bideoklipen trilogia planteatzerakoan asmoa izan da ohikoa ez zen zerbait egitea: gehiago ematea, buelta bat gehiago. Bideoak ere, banaka, ikusgarriak izatea nahi izan dugu, zerbait "moderno", efektuekin, *Bother* diskoaren kasuan bezala.

Oso pozik geratu gara Taom ekoizte-txekoek egindako lanarekin. Historiari dagokionez, eta lehenengo bideoa ikusi baduzue, kapsula bat azaltzen da bertan, eskutik eskura dabilena. Horren bueltan dator trilogia. Zer gordeko ote du kapsula horrek?

Nola egituratuko duzue trilogia?

Lehenengo bideoa kalean da azarotik. Aurkezpen berezi bat egin genuen Bilboko Kafe Antzokian, bertan hiru bideoak ikusi ahal izan ziren. Beste biak aspalditik eginak daude, eta bigarrena aurki askatuko dugu. Hirugarrena aurrerago.

Bother. Nor gogaitu nahi duzue?

Kontzientziak astindu nahi ditugu, ba-koitzaren pentsamenduak. Jendeak pentsatu, mobilizatu eta inplikatu egin behar du gizartean. Gaur egun, dena oso individualista bihurtzen ari da, gizarteak ez du erreakzionatzen.

Zer datorkizu burura lehenengoz *Bother* lanaren sorkuntza eta garapenean pentsatzean?

Izugarrizko lan pila urtebete eskasean. Talde askok konposatzeko eta grabatzeko etenaldi bat egiten dute, baina hori ez da Vendettaren kasua.

Guk konposatu, entseatu, bideoak grabatu eta lan hori guztia, biran gauden bitartean egin ohi dugu normalean, etenik gabe. Gogoko dugu eromen puntu hori.

» “Kontzertuetara joateko ohitura ekarriko nuke nik atzerritik; adin guztietako jendea batzen da ikustera eta dantza egitera”

» “*Bother* da Vendettaren disko guztietan ska gehien duena

» “Gaur egun, dena oso individualista bihurtzen ari da, gizarteak ez du erreakzionatzen”

» “Elektronika eta ska uztartzearen lan gogor hori Pellok hartu du, diskoaren ekoizle lanetan aritu da eta”

» “Ez dugu oroimenik, ez dugu gogoratzen gure aitona-amonei, arrazoi bat edo besteagatik migratzea tokatu zitzaienekoa”

» “Biran gauden bitartean konposatu, entseatu eta bideoak grabatu ohi ditugu, etenik gabe. Gogoko dugu eromen puntu hori”



Diskoaren estetika futurista eta apokaliptikoa da. Zer irudikatu nahi izan duzue, beldurrean oinarritutako estatu poliziala?

Ufa! Ze ezaguna egiten zaidan “beldurrean oinarritutako Estatu polizial” hori, ezagunegia gauza onerako. Lehenengo bideoa ikusterakoan hori etor dakiok burura ikusleari, baina beste bi bideoei itxaron behar! [Barrez ari da].

Nire ustetan ska oinarriak gero eta pisu handiagoa dauka; kantu ia guztietan dago presente iraganeko beste estilo batzuei lekua hartuz. Zer diozu?

Arrazoi guztia duzu. *Bother* da Vendettaren disko guztietan ska gehien duena. Pellok eta Jabierok egiten dituzte kantuak, eta era naturalean ateratzen zaie-na islatzen da diskoetan. Abesti asko genituen, baina gero bozketa egin eta denon artean erabaki genuen zein kantu sartu eta zein ez. Oraingo hau ska diskoa da zalantzarik gabe, musikak ahozko komunikazioaren bitartez transmititzeko aukera ematen digu.



Vendetta talde nafar boskotea.
Enrikko Rubiños ezkerreko bigarrena da.

Berrikuntza handiena elektronikaren erabilera da. Zer dela-eta? Bitxia da...

Kamikaze Tour birako zuzenekoetan jada elektronikarekin jolasten hasi ginen eta gustatu zitzaigun. Indarra ematen diola iruditu zitzaigun. Orduan, ska mu-

sika ukitu elektronikoeekin nahastea ideia ona zela pentsatu genuen. Baina tentuz egin beharreko lana zela jakitun ginen, gehiegizkoa gerta ez zedin. Bi estiloak uztartzearen lan gogorra Pellok hartu du bere gain, oraingoan diskoaren ekoizle lanetan aritu da-eta. Oso gustura gaude emaitzarekin.

Dub-ean sakontzeak edo elektronikaren dantzagarritasunak erakartzen zaituzte gehiago?

Biek. Gure disko guztietan dago eboluzioa eta dub-ean arakatzeko interesgarria da. Horrez gain, ska bera nahiko dantzagarria da eta horri elektronikaren ziztatatzea sartzen badiozu are gehiago, ezta?

No volveré, Ya no vuelve quien se va. Ya nadie vuelve al nido sin hacerlo estallar... Alde egitea, itzultzeko zailtasuna... oso presente daude diskoan. Emigrazioa, errefuxiatuak dituzue gogoan?

Bai. Jabierorena da kantu hori, berak baditu immigranteak diren gertuko lagunak. Denak dakigu migranteen egoera oso gogorra dela aspalditik: ematen zaien traktera ez da egokia, ez gizartearen aldetik, ezta erakundearen aldetik ere. Ez dugu oroimenik, ez dugu gogoratzen gure aitona-amonei, arrazoi bat edo besteagatik, migratzea tokatu zitzaizaieneko.

Asko bidaiatzen duzue... Zer aurkitu duzue kanpoan? Zer ikasi edota ekarri dezakegu kanpotik?

Kontzertuetara joateko ohitura eka- rriko nuke nik atzerritik. Berdin du,

areto batean, plaza batean edo etxe okupatu batean den. Frantzia, Suitza eta Alemanian, esateko, adin guztietako jendea joaten da kontzertuak ikustera, eta dantzatzera. Latinoamerikan kontzertuak nola bizi dituzten ikaragarria da: oso sutsuak dira, futboleko hooliganak dirudite. Argentinan ikaragarria da publikoa kantuan ikustea, eta dantzan, ufa! Oilo ipurdia jartzen zait oroitzean.

Euskal Herria eta euskal izaera askotan agertzen dira diskoan. Garena eta duguna kanpoan ere erakutsi nahia?

Edozein lekutan jotzen dugula, beti hartzen dugu kontuan nondik gatozen. Musika talde bezala konpromiso hori nahitaezkoa da. Euskal Herria zer den, euskal kultura eta izaera nolakoak diren, eta Euskal Herria non dagoen argi kokatzen saiatzen gara goazen tokira goazela, Madril izan edo Buenos Aires.

Horren haritik, Batasuna abesti berrizalea iruditu zait musika zein hitzei dago-kienez. Ados zaude?

Bai, kantu bitxia eta indartsua da, batasunak ematen duen indarra dauka kantu horrek. Zuk aipatutako euskal izaera inoiz baino batuago izan behar baitugu kanpoko eragileei aurre egiteko.

Gero eta hizkuntza gehiago uztartzen dituzue, askotan kantu berean. Mezua biderkatu nahi duzue? Kultur aniztasuna bultzatu?

Beti nahastu izan ohi ditugu hizkuntzak, baina arrazoi duzu, disko honetan nabarmenagoa da. Asko gustatzen zaigu sonoritatean aberatsagoa delako, eta horrek mezua biderkatzen laguntzen badu, hobe! ■

Beasaingo Ikastola

HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

AURKEZPENAK: URTARRILAREN 30ean, Haur eta Lehen Hezkuntza
15:30ean euskaraz. 18:00etan gazteleraz
URTARRILAREN 31n, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
16:00ean euskaraz. 18:00etan gazteleraz.
ATEAK ZABALIK. Egun horietan 17:00etan.

BERRITZAILEA. ELEANITZA. EUSKALDUNA ETA GERTU-GERTUKOA

Urbialde, 2 · Beasain · ☎ 943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus

